



KOSTUEN EGITURA

Gure kostuak zazpi atal desberdinetan banatuko ditugu.

Lehenengoa gure enpresaren lokala edo salmenta tokia izango da. Lokal honek espazioa izan behar du bizikletak eta patineteak gordetzeko. Hemen egongo da gure kostuen zati handi bat, guretzat ezinbestekoa delako lokal bat izatea bizikleta eta patineteen alokairurako.

Bigarren atala bizikleten eta patineteen alokairua eta segurtasun materiala izango da eta ORBEA-ren eskutik egingo dugu. Hemen ere gure kostuen zati bat joango da lehenengo bi atal hauek gure enpresako garrantzitsuenak dira eta.

Bi atal hauek azaldu ondoren, herri osotik egingo ditugun bisita gidatuak burutzeko langilea ordaintzeko joango zaigu diruaren beste zati bat. Ekintza hau jende gehiago erakartzeko asmotan egingo dugu herria ezagutzeak interesa sortuko duelako bisitariengan pentsatzen dugulako.

Ondoren, GPS-ak erosi ditugu, hauekin tourrak egingo dira GPS-an adierazitako ibilbidea jarraituz edo norberak egin nahi duen ibilbidea egiteko. Horrela ez da inor egon behar tour gidatu bat egiteko, bisitariak beste egun edo ordu batzuetan etorri gero, hauek ere aukera izango dute haiek nahi duten lekuak bisitatzeko edo nahi dituzten ibilbideak egiteko beraien erritmorara.

Hurrengo atalean bizikleten mantentzea edukiko dugu, honen barruan, edozein puskatutako pieza eta baterien karga joango dira, hau ere guretzat ezinbestekoa da, etorkizunari begira baterien bidez konpetentziari irabazteko argudio hona izan daitekeelako emisiorik askatu gabe.

Publizitatea ere atal garrantzitsua da guretzat, bisitariak etortzerakoan agian ez dakitelako ezer gure zerbitzuari buruz eta publizitatearen bidez lortu genezake bisitari horien atentzioa deitzea gure zerbitzura erakarrit.

Azkenik, gure web orrialdea eta gure aplikazioaren mantentzea izango da. Zati hau ere garrantzitsua da horien bidez jendearen atentzioa deitu ahal dugulako eta web orrialdean eta aplikazioan gure zerbitzuak edukiko dituen bizikleta eta patinete motak, GPS eta tour gidatuetako ibilbideak eta prezio ezberdinak azalduko direlako.